



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko otsailaren 8a

21. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- 10-22/LEY-00007. Foru Legea, Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- 10-22/LEY-00012. Foru Lege proiektua, justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- 10-23/PRO-00001. Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).
- 10-22/PRO-00020. Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (17. or.).

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

- 10-23/AUT-00002. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 10-23/MOC-00006. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Muesko presa erromatarren aztarnategia eta Erdi Aroko errota Kultur Intereseko Ondasun deklaratu ditzan. Kultura eta Kirol Batzardeak onetsia (19. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**10-22/LEY-00007. Foru Legea, Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzkoa**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezten. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentuari behar zaizkio igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2021eko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 157. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onesten dira Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrek, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontu Orokorren edukia Nafarroako Atarian ematen da argitara.

## 10-22/LEY-00012. Foru Lege proiektua, justizia errestituratuiboari, bitartekaritziari eta jardunbide errestituratuibo komunitarioei buruzkoa.

### AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen justizia errestituratuiboari, bitartekaritziari eta jardunbide errestituratuibo komunitarioei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### 1. ZUZENKETA

##### NAVARRA SUMA ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

1. artikuluari bigarren apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

«Edonola ere, foru lege honetan xedatutakoa ez zaie aplikagarria izanen lan arloko bitartekaritza eta adiskidetzeari, Nafarroako Foru Komunitatean beren arau esparru propioaren eta garapen araudi espezifikoaren arabera gauzatzen dituztelako horiek Nafarroako Lan Auzitegiak eta Nafarroako Gobernuko Lan Zerbitzuak».

#### 2. ZUZENKETA

##### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«3. artikulua. Prozesuen printzipio gidariak.

Justizia errestituratuiboko, bitartekaritza eta jardunbide errestituratuiboetako prozesuak printzipio gidari hauei jarraikiz gauzatuko dira, legedi aplikagarriarekin bat:

a) Borondatezkotasuna. Parte hartzen duten pertsonen askatasun osoa dute prozesu hauetan parte hartzeko, bai eta edozein unetan horiei uko egiteko ere.

b) [...]

c) Konfidentzialtasuna. Konfidentzialak izanen dira bai prozesuak, bai horiek iraun bitartean ahoz edo agiri bidez lortutako informazio guztia, salbu eta parte-hartzaileek betebeharrak betetzetik salbuesten badute, berariaz eta idatziz, edo legezko xedapenen batek hala xedatzen badu.

d) [...]

e) [...]

f) [...]

g) Gaitasun teknikoa. Prozesuez arduratzen diren pertsonen horiek behar bezala gauzatu ahal izateko legez eskatutako prestakuntza tekniko egokia izan beharko dute».

Zioak: a) apartatuaren idazketa hobetu da. Konfidentzialtasuna prozesu errestituratuiboaren eta bitartekaritzaren funtsezko printzipio gidarietako bat da; hori betetzen dela ziurtatzeko, c) apartatua adierazi da hori betetzetik salbuesteko lekupena berariaz eta idatziz egin behar dela.

g) apartatu berri bat sortu da, bitartekaritza-prozesuez arduratuko diren pertsonen gaitasun tekniko egokia izanen dutela bermatze aldera.

#### 3. ZUZENKETA

##### GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

3.d) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«d) Inpartzialtasuna eta neutraltasuna. Prozesuaren arduradunak ez du prozesua hasiko edo utzi egin beharko du haren inpartzialtasunari eragiten dioten egoerak daudenean, indarrean dago-

en legedian xedatutako printzipioei jarraikiz. Era berean, prozesuaren arduradunak alderdien borondatearekiko jarrera neutrala izan beharko du prozesu osoan zehar».

Zioak: Justizia errestitatiboko eta bitartekari-tzak prozesuez eta beste edozein errestitatuzio-jarduketaz arduratzen den pertsonak ez ditu adie-razi behar prozesuko gatazkari buruz dituen nahi eta iritzi propioak, eta errespetatu egin behar ditu prozesu jakin horren mende dauden pertsonen borondateak, jarrerak eta nahiak; betiere, berdintasunezko jarrera izan beharko du egoera jakin baten aurrean, zenbait ikuspegitan oinarrituta, eta ez du inolako elkartasunik sortu behar gatazkako parte-hartzaile batekin ere.

#### 4. ZUZENKETA

**GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
**PODEMOS-AHAL DUGU**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

3. artikuluari h) apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«h) Prozedurako hizkuntzak. Lege honetan araututako programak eta zerbitzuak Foru Komunitateko hizkuntza ofizialetako edozeinetan gauzatzten ahalko dira, indarreko araudiarekin bat, eta Nafarroako Gobernuak dagozkion bitartekoak bermatu beharko ditu eskubide hori benetan egikaritu ahal izateko».

Zioak: Prozesuen printzipio gidari berri bat gehitzen da, bermatzeko bitartekaritzako eta justizia errestitatiboko prozesuak Foru Komunitateko hizkuntza ofizialetako edozeinetan gauzatzten ahalko direla.

#### 5. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
**PODEMOS-AHAL DUGU**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

4. artikuluaen 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Gobernuak zainduko du justizia errestitatiboko zerbitzuek, bitartekaritzak eta jardunbide errestitatitibook kalitate- eta espezializazio-estandararak betetzen dituztela, kasuen izaerara eta gatazken ezaugarrietara egokituak, eta genero ikuspegia zeharkakotasunez sartuta».

Zioak: Pertsona bitartekariak edo bideratzaileak ezinbesteko elementua dira justizia errestitatiboko tekniketan, eta, neurri handi batean, esku-hartzearen arrakasta prozesuan esku hartzen duten pertsonen prestakuntzaren eta espezializazioaren mende egoten da.

#### 6. ZUZENKETA

##### NAVARRA SUMA

##### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluaen bigarren puntua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«2. Ildo horretatik, justiziaren arloan eskumena duen departamentua arduratuko da, inplikaturadauden instituzio eta erakundeen parte-hartzearekin, bi urteko kalitate-plan bat egiteaz. Plan horretan, beharrezkoak diren laguntza-, prestakuntza- eta ikuskapen-neurriak jasoko dira».

Zioak: Hasierako idazketa zuzentzea, kalitate-planak bi urteko indarraldia izan dezan (sei hilabetekoa izan ordez).

#### 7. ZUZENKETA

##### NAVARRA SUMA

##### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluaen lehenengo apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Foru lege honetan arautzen diren zerbitzuek eta programek bermatu beharko dute desgaitasuna dutenen irisgarritasun unibertsala, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legean eta Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legean jasotako baldintzetan. Horretarako, bermatu beharko da prozesuak gauzatzten diren guneak irisgarriak direla, eta honako hauek erabiltzen direla: zeinu-hizkuntza eta ahazko komunikazioari laguntzeko bitartekoak, braille sistema, ukimenezko komunikazioa edo desgaitasuna dutenek prozeduran berdintasunez parte hartzeko modua ematen duen beste edozein sistema».

Zioak: Desgaitasuna duten pertsonen berdintasunaren esparruan Parlamentuak berriki onetsitako araudiaren aipamena sartzea testuan.

**8. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

6. artikuluari apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«3. Horretarako, informazio-guneen sare bat eratuko da, bitartekaritza eta beste jardun errestauratibo batzuei buruzko eta horien abantailei eta mesedeei buruzko informazioa emateko herritarrei».

Zioak: Ganbera honetan gai horren inguruan sortutako Ponentziak bere konklusioen artean esplizituki jasotako proposamena gehitzea testuari.

**9. ZUZENKETA****NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOEK,****PODEMOS-AHAL DUGU****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK****ETA IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK****AURKEZTUA**

9. artikularen 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«2. Horiek horrela, 4.2 artikuluan xedatutako kalitate planak berriaz jaso beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa, ikuspegi intersektional batekin».

Zioak: Ikuspegi intersektionalaren aipamena gehitzen da.

**10. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

10. artikularen lehenengo apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Aplikatzekoa den legediarekin bat, zerbitzu eta programa horien jarduketak telematikoki egitea onartuko da».

Zioak: Ez zaigu positiboa iruditzen horrelako programa eta zerbitzuetan bitarteko elektronikoen erabilera sustatzea berriaz.

**11. ZUZENKETA****NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOEK,****PODEMOS-AHAL DUGU****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK****ETA IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK****AURKEZTUA**

10. artikularen 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Aplikatzekoa den legediarekin bat, zerbitzu eta programa horien jarduketak telematikoki egiteko erraztasunak emanen dira, presentzialki egitea ezinezkoa denean».

Zioak: Errestaurazio- eta bitartekaritza-prozesuetan, kide guztien esku-hartze presentziala faktore garrantzitsua da lantzen ari diren gatazkak ebatzi ahal izateko. Halere, salbuespen gisa, prozesuok telematikoki egiteko erraztasunak emanen dira.

**12. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

13. artikularen bigarren puntua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«2. Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak bere gain hartuko ditu organo judizial eskudunak bideratzen dizkion kasuak, zigor arloko prozesuaren edozein fasetan. Jada judizializatuta dauden prozedurak direnez, biktimaren zein ofentsagilearen abokatuen laguntza aktiboa sustatu beharko da prozedura osoan zehar».

Zioak: Legeak aipatzen dituen prozesuetan abokatzaren parte-hartze handiagoa gehitze aldera Iruñeko Abokatuen Elkargoak eginiko eskaria jaso da.

**13. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14. artikularen a) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«a) Parte-hartzea: ukitutako pertsonen eta komunitateen parte-hartze aktibo eta zuzena erraztu behar da, bai eta ukitutako pertsona edo komunitate horiei laguntzen dieten abokatuena ere».

Zioak: Legeak aipatzen dituen prozesuetan abokatutzaren parte-hartze handiagoa gehitze aldera Iruñeko Abokatuen Elkargoak eginiko eskaria jaso da.

#### 14. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA**  
**TALDE PARLAMENTARIOEK,**  
**PODEMOS-AHAL DUGU**  
 FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
 TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
 AURKEZTUA

18.4 artikulua aldatzen da. Honela geldituko litzateke testua:

«4. Orobat, zerbitzu hori baliatzeko eskaerak egiten ahalko dituzte Biktimei Laguntzeko Bulegoak, Zigor Betearazpeneko Atalak, errestaurazio-eta bitartekaritza-prozesuak egiten dituzten elkar-go profesionalak edo gertaeren berri duen beste edozein zerbitzu publikok».

Zioak: Elkargo profesionalak gehitzea, justizia errestauratiboko prozesuen mende jartzen ahal diren gertakarien zuzeneko jakitun diren heinean.

#### 15. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
 TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

18. artikulua bosgarren puntua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«5. Erabiltzeko eskaera jaso ondoren, Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak informazioa emanen die eskatzaileei eta haien abokatuiei, halakorik izanez gero, haien eskubideei buruz, eta eskaera ebaluatuko du, organo judizialari auzitegi barruko prozesu errestauratibo bat hastea proposatzeko, hala badagokio eta indarreko legediaren barruan betiere».

Zioak: Legeak aipatzen dituen prozesuetan abokatutzaren parte-hartze handiagoa gehitze aldera Iruñeko Abokatuen Elkargoak eginiko eskaria jaso da.

#### 16. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
 TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

25. artikulua bosgarren puntua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«5. Prozesu guztiak amaierako txosten batekin bukatuko dira, hala badagokio Fiskaltzaren, organo judizialen eta zigor-prozesuan esku hartzen duten alderdietako bakoitzaren abokatuen esku utziko dena, legez ezarritako konfidentzialtasuna errespetatuta».

Zioak: Legeak aipatzen dituen prozesuetan abokatutzaren parte-hartze handiagoa gehitze aldera Iruñeko Abokatuen Elkargoak eginiko eskaria jaso da.

#### 17. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
 TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

26. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak akordioak betetzen direla begiratuko du, eta, eskatzen badiote, horren berri emanen die organo judizialei, Fiskaltzari eta zigor prozesuan esku hartzen duten alderdietako bakoitzaren abokatuiei, legez ezarritako konfidentzialtasuna errespetatuz, betiere».

Zioak: Legeak aipatzen dituen prozesuetan abokatutzaren parte-hartze handiagoa gehitze aldera Iruñeko Abokatuen Elkargoak eginiko eskaria jaso da.

#### 18. ZUZENKETA

**GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA**  
**TALDE PARLAMENTARIOEK,**  
**PODEMOS-AHAL DUGU**  
 FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
 TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
 AURKEZTUA

30. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Nafarroako Gobernuak sustatu egingen du bitartekaritza zibilaren eta merkataritzaren, familiarren, administrazioarekiko auzien eta lanaren arloetako bitartekaritzaren garapena, auzitegi barrukoa zein kanpokoa, Foru Komunitateko lurralde osoan, aplikatzekoa den legedian aurreikusitakoarekin bat.

2. Horretarako, bermatuko du pertsona interesdunek informazioa eskuratzeko modua dutela eta egoera jakinetan doako bitartekaritza jasotzeko duten eskubidea egikaritzen ahal dutela, eta honako hauek sustatuko ditu: hitzarmenak izenpetzea, dirulaguntzak ematea, prestakuntza- eta zabal-kunde-jarduketak egitea eta egokia den beste edozein neurri».

Zioak: Idazketa hobetzen da eta lan-arloko bitartekaritzaren sustapena gehitzen da.

## 19. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA  
BAI ETA EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
**PODEMOS-AHAL DUGU**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

33. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Justiziaren arloan eskumena duen departamentuak, bitartekaritza erakundeekin elkarlanean, pertsona bitartekariaren hasierako eta etengabeko prestakuntza egokia sustatuko du.

2. Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan inskribatutako pertsonak eta entitateek bi urteko kalitate planean ezarritako prestakuntza-jarduerak egin beharko dituzte».

Zioak: Administrazio publikoak arduratu behar du pertsona bitartekariaren prestakuntza bermatzeaz, prozesuaren kalitatea ziurtatze aldera.

## 20. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA  
BAI ETA EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
**PODEMOS-AHAL DUGU**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

34. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Nafarroako Gobernuak esparru orokor bat landuko du Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzeko, eta bitartekaritzaren alorreko jokabidearen kode bat ere landuko du.

2. Beren borondatez Nafarroako Pertsona Bitartekariaren eta Bitartekaritza Erakundearen Erregistroan inskribatutako pertsonak eta entitateek bitartekaritza-prozesuaren faseen esparru orokorra bete beharko dute, bai eta foru lege honen arau-garapenean ezarriko den jokabide kodea ere».

Zioak: Beren borondatez Nafarroako Pertsona Bitartekariaren eta Bitartekaritza Erakundearen Erregistroan inskribatutako pertsonak eta entitateek kode etikoa eta esparru orokor arautzailea betetzeko obligazioa ezartzen da.

## 21. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA  
BAI ETA EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
**PODEMOS-AHAL DUGU**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

36. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Nafarroako Gobernuak finantzatutako bitartekaritza prozesuetan, diziplina desberdinetako profesionalen arteko baterako bitartekaritza lehenetsiko da, hori gomendatzen duten arrazoi teknikoak daudenean, ezaugarri familiar, psikologiko eta sozial garrantzitsuei erantzuteko.

2. Kasu horietan, kalitate planak ezarriko du zerikusia duten profesionalen arteko baterako koordinazio eta prestakuntza sistema, eta derrigorrean bete beharrekoa izanen da Nafarroako Bitartekaritza Entitatearen Erregistroan inskribatutako entitate guztientzat».

Zioak: Baterako bitartekaritza sustatzea, eta kalitate planean koordinazio-neurriak ezartzea.

## 22. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

38. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«38. artikulua. Pertsona bitartekariaren eta bitartekaritza erakundearen erregistroa.

1. Nafarroako Gobernuak zainduko du Nafarroan jarduten duten pertsona bitartekariak eta bitartekaritza erakundeak, beren jarduerak garatzean, errespetatzen dituztela bitartekaritzaren printzipioak, hots, estatuko legedian eta foru lege honetan ezarritakoak, dagozkien arauak ezartzen duten moduan.

2. Ildo horretatik, Nafarroako Pertsona Bitartekariaren eta Bitartekaritza Erakundearen Erregistro bat sortuko da, zeina justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak kudeatuko baitu».

Zioak: Testuan aipatzen den erregistroa pertsona bitartekarietara ere hedatzea, Ganbera honetan gai horren inguruan sortutako Ponentziak adostutakoari jarraikiz.

## 23. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

39. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Nafarroan erregistratutako pertsona bitartekariak eta bitartekaritza erakundeek bitartekaritzako kalitate zigilua eskuratzen ahalko dute, ezartzen diren jokabide-kodeekiko atxikimendua bermatuko duena.

2. Erregelamenduz zehaztuko dira pertsona bitartekariak eta bitartekaritza erakundeek kalitate zigilua lortzeko bete beharreko eskakizunak eta gauzatu beharreko prozedura; betiere, zigilua lortzeko, eskatu egin beharko dute, eta kalitate irizpide berezi batzuk bete beharko dituzte.

3. Bitartekaritzaren kalitatea neurtzeko, kontuan hartuko da ea beren gain hartzen eta betetzen dituzten kalitate-planean zehaztutako jokabide-kodeak eta prestakuntza espezifikoko eskakizunak.

4. Nafarroako Pertsona Bitartekariak eta Bitartekaritza Erakundeak Erregistroak kalitate zigilu hori duten pertsonen eta erakundeak berri emanen du».

Zioak: Pertsona bitartekariak ere kalitate zigilua lortzeko modua ematea (bitartekaritza erakundeak gain).

## 24. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

41. artikulua lehenengo puntua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Nafarroako Gobernuak bermatuko die doako bitartekaritza izateko eskubidea, auzitegiak nahiz auzitegiak kanpokoa, hala eskatzen duten pertsona fisiko eta juridikoei, doako bitartekaritzarako eskubidearen onuradun izateko irizpideak eta baldintzak betetzen badituzte, foru lege honen erregelamendu bidezko garapenean ezartzen diren baldintzetan. Nolanahi ere, doako bitartekaritzarako eskubidea izanen dute doako laguntza juridikorako eskubidearen onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten pertsonak. Oro-

bat, bermatuko da pertsona onuradun horiek abokatu baten laguntza dutela auzitegi barruko zein kanpoko bitartekaritzan».

Zioak: Legeak aipatzen dituen prozesuetan abokatutzaren parte-hartze handiagoa gehitze aldera Iruñeko Abokatuen Elkargoak eginiko eskaria jaso da.

## 25. ZUZENKETA

### GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOEK,

#### PODEMOS-AHAL DUGU

#### FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK

#### ETA IZQUIERDA-EZKERRA

#### TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK

#### AURKEZTUA

43. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«43. bis artikulua. Lan-arloko bitartekaritza eta jurisdikzio sozialekoa.

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak sustatuko ditu lan-arloko bitartekaritza sustatzeko Foru Komunitateko lurralde osoan, auzitegi barruko zein kanpoko, aplikatzeko den legedian aurreikusitakoarekin bat».

Zioak: Lan-arloan bitartekaritza bultzatu nahi da, lan-arloko gatazkak konpontzeko modu egokia den heinean.

## 26. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, 43. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«43. bis. Toki entitateekin koordinatzea.

Nafarroako Gobernuak koordinazioa sustatuko du Foru Komunitateko administrazio publikoen artean, toki entitateekikoa bereziki, bitartekaritzaren alorrean honako eskumen hauek izanen baitituzte horiek:

a) Bitartekaritza sustatzea, justiziaren alorrean eskudun den departamentuarekin elkarlanean.

b) Bitartekaritzaren alorreko gizarte- eta komunitate-ekimeneko programak babestea, foru lege honen esparruan.

c) Arlo horietako jakintzen, esperientzien eta berrikuntzen elkartrukea sustatzea.



d) Justiziaren alorrean eskudun den departamentuarekin elkarlanean, bitartekaritza garatzeko egin beharreko jarduerak egitea.

e) Justiziaren alorrean eskudun den departamentuaren mendeko zerbitzuen artetik bitartekaritza arduratzen denari bere mendeko bitartekaritza zerbitzu edo programen berri ematea».

Zioak: Toki entitateek duten papera sartzeari lege proiektu honetan, kontuan hartuta entitateok herritarrekiko hurbilenak direla, eta pedagogia lan izugarria egin dezaketela zentzu horretan.

## 27. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

45. artikulua lehenengo paragrafoa aldatzea proposatzen da. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Jardunbide errestituriboak edozein esparru sozialetan egiten ahalko dira, lan esparruan izan ezik, barne hartuta familia, auzo, eskola, osasun, kontsumo, antolakunde eta espertxe esparruak, besteak beste».

Zioak: Lan esparrua kentzea justizia errestituriboa gauzatzen ahal den esparruen artetik.

## 28. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

2. apartatu berri bat gehitzen zaio 49. artikuluari. Hona hemen testua:

«2. Nafarroako Gobernuak, orobat, gatazken prebentzioa sustatuko du, berdintasunaren hezkuntzarekin, bakearekin, indarkeria ezarekin eta gatazken ebazpen baketsuarekin lotutako edukia lantzen dituzten programazio didaktikoak sartuz ikastetxeetan».

Zioak: Proposatzen da bitartekaritza eta beste jarduera errestituribo batzuk sartzeari ikastetxeetan.

## 29. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

51. artikulua d) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Justizia errestituriboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestituriboaren bi urteko kalitate plana onestea».

Zioak: Hasierako idazketa zuzentzea, kalitate-planak bi urteko indarraldia izan dezan (sei hilabetekoa izan ordez).

## 30. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

51. artikulua e) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«e) Agintari judizialei laguntzea, bai eta Nafarroako abokatutza-elkargoeri ere, auzitegi barruko bitartekaritzako eta justizia errestituriboko zerbitzuak benetan abian jartzen».

Zioak: Legeak aipatzen dituen prozesuetan abokatutzaren parte-hartze handiagoa gehitze aldera Iruñeko Abokatuen Elkargoak eginiko eskaria jaso da.

## 31. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

51. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Nafarroako Gobernuak, justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuaren bitartez, eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Justizia Errestituriboaren Zerbitzua, auzitegi barruko eta kanpoko bitartekaritza sustatzeko neurriak eta jardunbide errestituribo komunitarioen programak bultzatu, antolatu eta gainbegiratzea.

b) Behar diren neurriak hartzea bermatzeko justizia errestituriboko, bitartekaritzako eta jardunbide errestituriboetako zerbitzuak, progra-

mak eta prozesuak, bakoitza bere izaera bereziaren arabera, kalitate homogeneouskoak direla Nafarroako Foru Komunitate osoan, lurralde-koehesioaren eta berdintasunaren printzipioak betetze aldera.

c) Nafarroako justizia errestituratioa, bitartekaritza eta jardunbide errestituratioak sustatzeko lau urteko plan estrategikoa onestea, eta Nafarroako Parlamentura bidaltzea, ezagutu dezan.

d) Justizia errestituratioaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestituratioen bi urteko kalitate plana onestea.

e) Foru Komunitateko agintari judizialei eta operadore juridikoei laguntzea auzitegi barruko bitartekaritzako eta justizia errestituratio boko zerbitzuak benetan abian jarzen.

f) Departamentuen arteko koordinazio orokorrerako eta zeharkako koordinaziorako irizpideak eta ereduak ezartzea beharrezkoa denean, bizikidetzan hezteko plan eta proiektuetako hezkuntza-ekintzen koordinaziorakoak barne.

g) Nafarroako Bitartekaritza Erakundearen Erregistroa kudeatzea eta etengabe eguneratzen dela gainbegiratzea.

h) Bitartekaritzako kalitate ziguia ematea, erregelamendu bidez ezarriko diren betekizunen arabera.

i) Justizia errestituratio boko, bitartekaritzako eta jardunbide errestituratio boko zerbitzuen jardueren gaineko datuak biltzea, helburu estatistikoz, eta emaitzak argitaratzea.

j) Arlo horietan jardunbide egokien protokoloak egin daitezten sustatzea, eta horietan diharduten pertsonak eta entitateak protokolo horiei atxikitzea sustatzea.

k) Justizia errestituratio bari, bitartekaritzari eta jardunbide errestituratio bari buruzko zabalkunde- eta prestakuntza-programak bultzatu eta gauzatzeta, profesionalei eta langile boluntarioei zuzendutakoak, foru-lurralde osoan, berdintasuneko eta lurralde-koehesio ko irizpideei jarraikiz.

l) Justizia errestituratio baren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestituratio baren arloko ikerketak eta ikasketak sustatzea.

m) Arlo horietan ezagutzak, esperientziak eta berrikuntzak truka daitezten sustatzea, eta etengabeko prestakuntzarako eta prestakuntza espezializaturako ikastaroak, jardunaldiak edo mintegiak sustatu eta antolatzea.

n) Foru lege hau garatzeko hartu beharreko neurriak hartzea».

Zioak: Auzitegi barruko bitartekaritza jaso da, eta testuaren idazketa hobetu da.

### 32. ZUZENKETA

#### NAVARRA SUMA

##### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

52. artikuluaaren lehenengo apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. Justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak jarduerak koordinatuko ditu zeresana duten entitateekin, Nafarroako Justizia Kontseiluan lantalde hauek sortuz eta bultzatuz:

- Justizia Errestituratio baren Batzordea.
- Bitartekaritza Batzordea».

Zioak: Iruditzen zaigu jarduera errestituratio bari, definizioz esparru judizialek kanpo gauzaten direnak, justiziaren alorreko operadoreekin eta prozedurekin berariaz lotutako organo baten bidez kudeatzea kaltegarria izaten ahal dela horrelako prozesuetarako.

### 33. ZUZENKETA

#### NAVARRA SUMA

##### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

53. artikuluaaren c) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«c) Pertsona bitartekari ei dagokienez, deontologia- eta diziplina-eginkizuna betetzea, eta legeek, protokoloek eta jokabide-kodeek ezartzen dizkieten betebeharrak errespetatzen dituztela zaintzea».

Zioak: Bitartekaritza erakundeek egin beharreko jardueren artean sartzea eginkizun deontologikoarekin lotutakoa.

### 34. ZUZENKETA

#### NAVARRA SUMA

##### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Titulu berri bat (V) gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

V. Titulua. Zehapen-araubidea.

54. artikulua. Izaera orokorreko xedapenak.

1. Foru lege honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeak –bitartekari ei zein bitartekari-

tzako alderdiei dagozkienak—, arau-hauste administratiboa diren jarduketak edo omisioak badira, kasuan-kasuan dagozkion zehapenak ekarriko ditu, organo eskudunak kontraesaneko espediente baten instrukzioa egin ondoren.

2. Foru lege honetan egintza jakinak arau-hauste administratibotzat jotzeak ez ditu galaraziko horien egileari dagozkion erantzukizun zibilak, zigor arlokoak edo bestelakoak.

55. artikulua. Arau-hauste motak.

Foru lege honetako aginduak bete ez izanaren ondoriozko arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izaten ahal dira.

56. artikulua. Arau-hauste arinak. Honako hauek arau-hauste arinak dira:

a) Alderdiei ez ematea espedienteko dokumentuetako edozeinen kopia.

b) Bitartekari lana bertan behera uztea, arrazoi justifikatua dela medio, behar adinako aurredeboraz jakinarazi gabe.

c) Lokalek, instalazioek, altzariek edo tresneriak gabeziak izatea, funtzionamenduari edo garbitasun eta higieneri dagokienez, nahiz eta horrek ez eragin arriskurik erabiltzaileen segurtasunerako edo osasunerako.

d) Lege honen bidez bitartekariei ezarri zaizkien betebeharetako beste edozein bete gabe uztea, hori arau-hauste larri edo oso larri modura sailkatuta egon gabe.

57. artikulua. Arau-hauste larriak. Honako hauek arau-hauste larriak dira:

a) Bitartekaritza jarduera kobratzea, zerbitzua doan eman behar den egoeretan.

b) Justizia arloan eskudun den departamentuak eskatutako agiriak eta datuak faltsutzea —foru lege honen 53. artikuluan jasotakoak—.

c) Bitartekaritzari edo bitartekaritzan diharduten profesionalen jardunari kalte egin diezaieketen jarduerak gauzatzea.

d) Prozesua gehiegi luzatzea, bitartekariari bakarrik egotz dakioken arrazoiren bat dela eta.

e) Bitartekaritzan parte hartzen duten alderdiekiko arretarik edo axolarik ez izatea modu larrian.

f) Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin egiteagatik zehapena jasotzea.

g) Bitartekaritza zereginekin hastea alderdien aurretiazko onarpenik izan gabe.

h) Bitartekaritza zeregina bertan behera uztea, justifikaziorik gabe.

i) Bitartekaritza prozesu batean esku hartzea, nahiz eta bateraezintasunen bat edo parte ez hartzeko arrazoiren bat izan.

j) Bitartekaritzapeko pertsonenganako errespetu-galtze larria.

k) Prozeduraren hasierako eta bukaerako aktak idazteko eginbeharra bete gabe uztea.

58. artikulua. Arau-hauste oso larriak. Honako hauek arau-hauste oso larriak dira:

a) Nabarmen legez kanpokoak diren akordioak egiten uztea.

b) Lege honen 3. artikuluan eskatutako printzipio nagusiak bete gabe daudela, bitartekari-lanari ekitea edo jarraitzea.

c) Justizia arloko gaietan eskudun den departamentuari foru lege honen 53. artikuluan aipatzen den dokumentazioa eman nahi ez izatea.

d) Bitartekaritzako alderdietakoren batentzat arraza, sexu, erlijio edo beste edozein gorabehera batengatik diskriminatzailea den jarduketa oro.

e) Bitartekaritza zeregina justifikatutako arrazoirik gabe bertan behera uztea, horrek alderdietakoren bati kalte larria eragiten badio.

f) Bitartekaritzari eustea, printzipio gidarietako baten bat betetzen ez bada ere.

g) Arau-hauste larrian berrerortzea.

h) Bitartekaritza prozeduretan parte hartzea, horretarako etenaldia ezarrita edukirik.

i) Bitartekaritza prozesu batean esku hartzea alderdietako bati kalte nabarmena eta objektiboa eragiten dion bateraezintasunen bat edo parte ez hartzeko arrazoiren bat gertatzen denean.

j) Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra haustea.

k) Bitartekaritzaren barruan, alderdiek adingabeen, desgaitasuna duten pertsonen eta mende-kotasun egoeran daudenen interesak kontuan izan ditzaten eragozteak.

59. artikulua. Berrerortzea.

Berrerortzea gertatu dela joko da arau-haustea egin duena, hura jakinarazi zaion egunetik bertatik urtebetera bitarteko epean, izaera bereko beste arau-hauste bat egiteagatik administrazio bidean ebazpen irmoz zehatua izan denean.

60. artikulua. Zehapen motak.

1. Foru lege honetan aurreikusitako zehapen administratiboak arau-haustearen kalifikazioaren arabera ezarriko dira:

a) Arau-hauste arinak direnean, idatzizko ohar-tarazpena eginen da edo bitartekari lanetan jarduteko aldi baterako etenaldia ezarriko da, gehienez hilabetekoa.

b) Arau-hauste larriak direnean, bitartekari lanetan jarduteko aldi bateko etenaldia ezarriko da, hilabete eta egun batetik urtebetera bitarteko denborarako.

c) Arau-hauste oso larriak direnean, bitartekari lanetan jarduteko aldi bateko etenaldia ezarriko da, urtebete eta egun batetik hiru urtera bitarteko denborarako, eta, arau-haustearen larritasunagatik edo arau-haustean berrerortzeagatik, ezarritako etenaldi hori behin betikoa ere izaten ahal da.

2. Edonola ere, bidegabeki jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, bestelako kalte eta galerengatik ordaina ematea galarazi gabe.

3. Administrazio bidean irmotasuna hartzen duten zehapen guztiak Nafarroako Pertsona Bitartekarien eta Bitartekaritza Erakundearen Erregistroan jasota geratuko dira.

61. artikulua. Zehapenen mailakatzea.

Zehapenak aplikatzerakoan, organo eskudunak honako mailakatze irizpide hauek hartuko ditu aintzat:

- a) Eragindako kalte moralak eta materialak.
- b) Eragindako arriskua.
- c) Arau-haustea zenbateraino den nahita edo zabarkeriaz egina.
- d) Arau-haustearen ondorioak jasan dituzten pertsonen kopurua.
- e) Aurrez egindako ohar-tarazpenak eta errekerimenduak ez betetzea.
- f) Lege honen 59. artikuluaaren arabera arau-haustean berrerortzea.
- g) Egindako kaltearen edo galeraren larritasuna.
- h) Zer neurritan eragin dien ez-betetzeak adingabeei, desgaitasuna duten pertsoneri edo mende-kotasun egoeran dauden pertsoneri.
- i) Arau-hausleak bereganatutako onura ekonomikoa.

Nolanahi ere, zehapenak dagokien tartearen erdialdetik gorakoak izanen dira, arau-hauslearen jokabideak adingabe baten edo desgaitasuna

duen pertsona baten interesak arrisku zehatz batean jarri dituen.

62. artikulua. Zehapen prozedura.

Zehapenak ezartzeko ahalmena egikarituko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

63. artikulua. Zehapen prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena.

1. Foru administrazioeko organo eskudunak egingen du zehapen espedientearen instrukzioa.

2. Justizia alorrean eskudun den departamentua izanen da foru lege honetan aurreikusitako zehapen administratiboak ezartzeko organo eskuduna, aldez aurretik kasuko prozeduraren instrukzioa eginda.

3. Zehapen prozedura hasteko eta haren instrukzioa egiteko eskumena, kasu honetan, justizia alorreko eskumenak esleituta dituen zuzendaritza nagusiarena izanen da. Justizia alorrean eskudun den departamentuko titularrari dagokio foru lege honek arau-hauste oso larrietarako aurreikusten dituen zehapenak ezartzea; gainerako zehapenak jartzea, berriz, zuzendaritza nagusiari dagokio».

Zioak: Zehapen-araubidea jasotzen duen titulu bat gehitzea, Ganbera honetan gai horretarako eraturako Ponentziak jasotako konklusioetako bati jarraikiz.

## 35. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Gehienez ere urtebeteko epean, honako hauek arautu beharko dira:

– Nafarroako Pertsona Bitartekarien eta Bitartekaritza Erakundearen Erregistroaren sorrera.

– Kalitate zigilua lortzeko eskakizunak.

– Komunitateko agente errestauratibo izaera lortzeko eta Nafarroako Sare Errestauratiboaren parte izateko eskakizunak».

Zioak: Jatorrizko idazketa zuzentzea, pertsona bitartekariak ere sartzeko Erregistroan banako gisa, eta horiek ere kalitate zigilua lortzeko modua izan dezaten.

### 36. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
**PODEMOS-AHAL DUGU**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA **IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Ahalmena emanen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa garatzeko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko.

Foru lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, gehienez ere, honako hauek onetsi behar ditu Nafarroako Gobernuak:

– Nafarroako Bitartekaritza Erregistroaren sorrera eta funtzionamendu-arauak.

– Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan inskribatutako pertsona bitartekariak eta bitartekaritza erakundeek kalitate zigilua lortzeko bete beharreko baldintzak.

– Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzen diren bitartekaritza prozesuen faseak arautzeko esparru orokorra, beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan inskribatutako pertsona eta entitateei zuzendua, edo, hala badagokio, esparruari atxikitzeko nahia dutenei, erregistroan inskribatuta ez badaude ere.

– Beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan inskribatutako pertsona eta entitateei zuzendutako jokabide kodea, zeinak barne hartuko duen, beste neurri batzuen artean, kodea urratuz gero bitartekaritzako kalitate zigilua galtzeko eta Nafarroako Bitartekaritza Erregistrotik kanporatua izateko aukera.

– Komunitateko agente errestauratibo izaera lortzeko eta Nafarroako Sare Errestauratiboaren parte izateko eskakizunak».

Zioak: Erregelamendu bidezko garapenen edukia ezartzea.

### 37. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
**PODEMOS-AHAL DUGU**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA **IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

«Plan estrategikoa eta kalitate plana» izeneko bigarren xedapen gehigarriaren lehenengo paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamendu bidezko garapena onetsi eta urtebeteko epean, gehienez ere, justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratiboak sustatzeko lehen plan estrategikoa onetsi behar du, bai eta foru lege honetan ezarritako kalitate plana ere».

Zioak: Neurri hauen abiaraztea errealismoz eta koherentziaz planifikatu ahal izateko, lehenbizi erregelamendu bidezko garapena egin behar da, eta, gero, plan estrategikoa eta kalitate plana onetsi, hori guztia modu progresiboan.

### 38. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko II. apartatuaren egungo 1. eta 2. paragrafoen artean paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«Biktimen arretaren esparru horren baitan, aipatutako foru-legedi horrek xedatzen du laguntza juridiko espezializatuko zerbitzu bat egonen dela biktima horien eskura, zeina Nafarroako abokatu-elkargo profesionalekin ituntzen ahalko den, eta, edonola ere, ofiziozko txanda bat egonen da, emakumeen gaineko indarkeriaren alorrean espezializatutako espezialistek osatua, zeinaren ardurapean egonen baitira biktima diren emakumeei eskainitako laguntza eta haien lege-ordezkaritza».

Zioak: Iruñeko Abokatuen Elkargoaren eskaria jaso da, zeinaren xedea baita jasota uztea biktimiek bermatuta dutela lege-defentsa beren prozesuetan, legez aitortuta dagoen eran.

**39. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko II. apartatuaren egungo 4. paragrafoaren ostean paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«Justizia errestauratiboaren esparruan, erresetatu eginen da defentsarako oinarritzko eskubidea, Konstituzioaren 24. artikuluan jasotzen dena eta Prozedura Kriminalaren Legearen 118. artikuluan garatzen dena; horri jarraikiz, pertsona guztiek dute defendatuak izateko, lege-laguntza jasotzeko eta doako laguntza juridikoa eskatzeko eskubidea. Ofentsagile orok, eta are gehiago zigor prozesu batean ikertua izaten ari denez, eskubidea du izendapen libreko abokatu baten lege-laguntza jasotzeko edo, horrelakorik ezean, ofiziozko abokatu batena, eta prozesu errestauratiboaren baitan ere bermatu behar da hori. Era berean, ofentsagile orok jaso behar du abokatu baten laguntza zigor prozesuan, bai eta prozesu errestauratiboan ere; hortaz, ez bada abokaturik izendatu, abokatu bat izendatzeko eskatuko zaie, edo auzitegiak ofizioz izendatuko du bat».

Zioak: Iruñeko Abokatuen Elkargoaren eskaria jaso da, zeinaren xedea baita herritarrentzat jasota uztea defendatuak izateko oinarritzko eskubide lagaezina dutela, eta prozesu errestauratiboan ere bermatu behar dela, ukitutako pertsonak beren jarduketan garrantzia ulertu ahal izan dezaten.

**40. ZUZENKETA****NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS-AHAL DUGU****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko III. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Europako eta estatuko esparru hori aintzat hartuta, foru araudiak erregulatzen du Nafarroako Foru Komunitateak, bere autoantolaketarako gaitasunen barruan, bitartekaritza bultzatu eta sustatzeko modua, eta Nafarroan ezartzen diren sustapen metodoak ezartzen ditu, bereziki Nafarroako Bitartekaritza Erregistroa eta bitartekaritzaren alorreko kalitate zigilua. Administrazioarekiko auzien

arloan ere bitartekaritza sustatzeko zenbait bide ezartzen dira, estatuan ez baitago gai horri buruzko erregulazio espezifikorik».

Zioak: “Nafarroako Bitartekaritza Erakundearen Erregistroa” izena zuzendu eta “Nafarroako Bitartekaritza Erregistroa” jarri da horren ordean.

Orobat, eskatzen dugu zuzenketa onartuz gero lege-testu osoan ordezteka izen hori, errepikatu egiten den kontzeptua baita, araudian duen garrantzia dela-eta.

**41. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko III. apartatuaren egungo 2. paragrafoaren ostean bi paragrafo berri gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«5/2012 Lege hori indarrean jarri ostean, Bote-re Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) landutako Auzitegi Barruko Bitartekaritza Gauzatzeko Gida argitaratu zen, bai eta Espainiako Abokatu-tzaren Kontseilu Nagusiak emandako Bitartekaritzaren alorreko Abokatutzarako Gomendioak ere. BJKNren Gidan –bitartekaritzaren esparru guztiak aztertzen ditu (zibila, familiarra, penala, lan arlokoa eta administrazioarekiko auzietakoa)–, adierazten da kasu guztietan bermatuta gelditzen dela legelari-laguntza auzitegi barruko bitartekaritza prozesu guztietan, alderdi bakoitzaren abokatuen aholkularitzako eta zuzendaritza juridikoko eginkizunen kaltetan izan gabe. Gainera, adierazten da funtsezkoa dela elkargo profesionalen eta bereziki abokatutzakoen egitekoa.

Alderdiaren abokatuak aktiboki lagunduko dio bezeroari bitartekaritza prozedura osoan zehar, aholkuak emanez edozein unetan, eta zainduz emaitza bat datorrela legediarekin, diseinatutako estrategiak ere zainduz, eta akordioen edukiak gainbegiratur horiek sinatu aurretik. Alderdiak bitartekaritzaren mende jartzea eragin duen akordioak izaten ahal dituen ondorio juridiko eta eragin prozesalen jarraipena egin behar du, bai eta akordioa adosteko baldintzena ere, eta horietan guztietan parte hartu behar du. Abokatutzaren laguntza aktiboa da, alderdien eta bitartekaritza prozesuaren beraren mesedetan emana. Era berean, abokatuak parte hartu behar dute lortutako akordioaren betearazpenean».

Zioak: Legeak aipatzen dituen prozesuetan abokatutzaren parte-hartze handiagoa gehitze aldera Iruñeko Abokatuen Elkargoak eginiko eskaria jaso da.

**42. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA  
BAI ETA EH BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS-AHAL DUGU  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren III. apartatuari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

«Komeni da azpimarratzea justizia errestiturati-boa zein auzitegi barruko bitartekaritza justizia-zerbitzu publikoaren parte direla guztiz, eta, beraz, horren berme guztiak dituztela haiek ere. Ildo horretatik, errespetatu eginen dira defendatua izateko, legelari-laguntza jasotzeko eta doako laguntza juridikoa eskatzeko oinarrizko eskubideak. Esparru penalean, akusatua den pertsona orok abokatu baten laguntza jaso beharko du prozesu errestiturati-boa, auzibidean jasoko lukeen baldintza beretan. Auzitegi barruko bitartekaritza ere legelari-laguntzak bermatuta egon behar du, alderdi bakoitzaren abokatuaren aholkularitza-eginkizunaren eta gidaritza juridikoaren kaltetan izan gabe. Alderdiaren abokatuak bezeroari lagunduko dio bitartekaritza prozedura osoan zehar, aholkuak emanez edozein unetan, zainduz emaitzak legedia betetzen duela, diseinatutako estrategiak ere zainduz, eta akordioaren edukiak gainbegiratzuz horiek sinatu aurretik».

Zioak: Paragrafo berri bat gehitzen zaio zioen azalpenari, jasotzeko defendatua izateko eskubidea uko egin ezinezko eskubidea dela eta prozesu errestiturati-boa osoan bermatu behar dela, ukitutako pertsonen beren jarduketaren garrantzia ulertu ahal izan dezaten.

**43. ZUZENKETA**

**NAVARRA SUMA ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren III. apartatuari hirugarren paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

Lan arloko bitartekaritza eta adiskidetzeari foru lege honen aplikazio eremutik kanpo utzi dira, Nafarroako Foru Komunitatean beren arau esparru propioaren arabera gauzatzen dituztelako horiek Nafarroako Lan Auzitegiak eta Nafarroako Gobernuko Lan Zerbitzuak».

Zioak: Zion azalpenean argitu behar da lege honetan ez direla arautzen lan arloko bitartekaritza eta adiskidetzeari, Nafarroan arau esparru propioa dutelako.

**44. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA  
BAI ETA EH BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS-AHAL DUGU  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko VI. apartatuaren seigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Azkenik, IV. tituluan, prozesu horiek garatzeko baliabide material eta instituzionalen antolaketa administrati-boa xedatzen da. Xedatzen da justiziaren arloan eskumena duen departamentuak bultzatu, antolatu eta gainbegiratu duela Justizia Errestiturati-boa Zerbitzua eta bitartekaritza eta jardunbide errestiturati-boa sustapena, eta hartu beharreko neurriak hartuko dituela bermatzeko zerbitzu horiek baliatzeko aukerak homogeneoak direla. Ezartzen da zerbitzuak lau urteko plan estrategiko bat eta bi urteko kalitate plan bat onetsi beharko dituela, bai eta Nafarroako Bitartekaritza Erakundearen Erregistroa eta kalitate zigilua eskuratzeko baldintzak ere. Azaltzen da, koordinaziorako mekanismo gisa, hiru lantalde eratu direla Nafarroako Justizia Kontseiluan, eta bitartekaritza erakundearen betebeharrak aipatzen dira.

Zioak: «Bitartekaritza erakunde» esamoldea zuzendu, eta «persona bitartekari eta bitartekaritza erakunde» jarri da horren ordean.

Orobat, eskatzen dugu zuzenketa onartzuz gero lege-testu osoan ordeztzea esamolde hori, errepikatutako egiten den kontzeptua baita, araudian duen garrantzia dela-eta.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**10-23/PRO-00001. Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa.**

**HITZAURREA**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatu egin behar da, araua egungo errealitateara egokitzeko, gaur egun bi motatako tokiko sozietate publikoak baitaude: batetik, kapital osoa jatorriko toki-entitatearen jabetzakoa dutenak, eta, bestetik, jatorriko toki-entitateak sozietatearen kapitalean parte-hartzearen gehiengoa izanik ere, sektore publikoko beste entitate batzuen jabe-

tzakoak ere badirenak modu minoritarioan, hala nola Nafarroako Gobernuarenak, CEPEN-Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoarenak, beste toki-entitate batzuenak, etab.

Partaidetza sektore publikoko zenbait entitate-  
ren artean banatuta duten sozietate horiek, gaur egun, indarreko legearen idazketari jarraikiz, zeharkako kudeaketako bitartekotzat jotzen dira (192.3 e artikulua), eta gehienez ere 50 urteko indarraldia izaten ahal duen emakida batekin lotuta daude (194. artikulua). Hain zuzen ere, epe hori betetzeko zorian dago Nafarroako udal-sozietate batzuetan, eta Mercairuña da horietako lehenengoa; horren ondorioz, dagoeneko murriztu egin dira sozietatearen proiektzioa eta estrategia, zalantzan jarriz, haren xedea den zerbitzu publikoaren gauzatzeaz gainera, sozietatearen finantza-biziraupena bera.

Hori horrela, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen da.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 192. artikulua 2. apartatuaren d) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“d) Tokiko merkataritza-sozietatea, kapital soziala titulartasun publikokoa duena, eta nagusiki toki-entitatearena berarena edo haren erakunde publiko batena”.



**10-22/PRO-00020. Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko otsailaren 2an egindako bileran, ezetsi egin du Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**10-23/AUT-00002. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko otsailaren 2an egindako bileran, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onetsi zuen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**10-23/MOC-00006. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Muesko presa erromatarraren aztarnategia eta Erdi Aroko errota Kultur Intereseko Ondasun deklaratu ditzan.**

*KULTURA ETA KIROL BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kirol Batzordeak, 2023ko otsailaren 1ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Muesko presa erromatarraren aztarnategia eta Erdi Aroko errota Kultur Intereseko Ondasun deklaratu ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deklaratu ditzan Muesko presa erromatarraren aztarnategia eta ingurua eta Erdi Aroko errota Kultur Intereseko Ondasun, barne hartuko dituen urmaelaren ontzia eta

behar besteko perimetro bat, ondasunari eragin diezaiokeen balizko eraikuntza, linea elektriko eta beste edozein elementutatik babesteko aztarnategia.

2. Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko espedienteak abiatu baino lehen, Nafarroako Gobernuak lan-mahai bat eratuko du ukitutako lursailen jabeekin, Muesko Udalarekin eta Nafarroako Gobernu Kultura eta Kirol Departamentuarekin, adoste aldera nola zedarritu aztarnategia babestea bermatuko duen perimetroa, bai eta sARBIDEAK ere, hala aztarnategira nola ukitutako gainerako lursailak”.

Iruñean, 2023ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

